

# Sarrera

---

38 [concursoescolaronce.es/material-primaria/introduccion](http://concursoescolaronce.es/material-primaria/introduccion)

Ongi etorriak ONCE Gizarte Taldeko Eskola Lehiaketaren 38. ediziora; hezkuntza-jarduerako programa honek elkartasuna eta pentsamendu kritikoa, ikasleen partaidetza aktiboa eta lankidetzaz bezalako balioak sustatzen lagunduko dizue, pertsona guztiek aukera berdinak izan ditzaten.

ONCE Gizarte Taldeak jakin badakigu inklusioaren bidea soilik zeharkatzen dela modu batean: GUZTIOK BATERA.

Hezkuntza erreminta ahaltzua da bidezkoagoa eta hobea den gizarte bat lortzeko. Lehiaketa honen bitartez ziur gaude, zuekin batera, irakasleak, ikasleak eta familia, etorkizun inklusiboago bat sortzen ari garela.

Horregatik ONCE Gizarte Taldearen Eskola Lehiaketak, bere 38. Edizioan, gonbidatzen zaituzte inklusioaren alde kolaboratzera eta ikasleak aldaketaren agente bihurtzen ditu, ekintzara bultzatuz, ikasgeletan eta hauetatik kanpo, esparrua inklusiboagoa bihurtzeko. Zeren guztiok eman ditzakegu arrerapausoak berdintasunerako bidean.

Aurten, "PAREKO EGITEN GAITUEN BIDEA" lelopean, sentsibilizaziotik ekintzara pasatzea proposatzen dizuegu, LOMLOE legean oinarrituz, pedagogia mailan egungoa eta erakargarria den proposamen bat lagun.

Hori guztia berarekin batera joan gaitezen kolorez bete den Oncelio gure isotipo ikonikoaren eskutik, elkarrekin ilusiozko kilometroak meta ditzagun.

## ZER DA ONCE GIZARTE TALDEA

---

ONCE Gizarte Taldea ONCE, ONCE Fundazioa eta Ilunion arteko bateratze-lanean datza zeinetan partekatzen duten identitate berdina eta gardentasunez ezarritako lehentasun bat: erabateko inklusioa eta pertsona itsuen eta beste desgaitasunen bat dutenen bizitza independenterako sarbidea Espainian eta munduan.

Heziketa, etengabeko prestakuntza, enplegua eta eskuragarritasuna betiere presente dauden helburuak dira, zein oinarritzen diren gizarte berrikuntzan eta gizarte inklusiboagoetarantz heltzeko bultzadan, desgaitasunarekin, hirugarren sektorearekin edo gizarte ekonomiarekin lotutako elkartegintzaren finkapena dela medio. Eredu berezi hau eskusio arriskuan dauden pertsonetako elkartasunaren inguruan pibotatzen da, funtsezko desgaitasunen bat dutenengan finkatuz eta haren hiritartasun eskubideak bete daitezela zainduz.

Talde bat da zeinetan pertsona itsuen eta desgaitasuna dutenen pertsonen erabateko inklusioa eredu berezia bihurtu den munduan, herritarren multzorako gizarte balioa sortzeko. Gizarte ekonomiaren lider bat zeinek egunero frogatzen duen gizarte

errentagarritasuna eta ekonomikoa uztartuta daudela, hiru jarduketa-eremuak bateratzen direnean, zeinek elkartzean elkar osatzen duten:

- **ONCE**

Pertsona itsuen edo ikusmen desgaitasun larria dutenen inklusiorako eta autonomia globalerako mundu mailako erreferentea. Loteria arduratsu, seguru eta solidarioaren salmenta kudeaketaren eredu baten bidez finantzatzen da, kontrol publikoaren menpean, bere diru-sarrera guztien berrinbertsio osoa gizartera itzuliz.

- **ONCE Fundazioa**

Organizazioak 1988an sortutako Baliabidea ONCE-ren gizarte ereduaren solidaritatea hedatzeko desgaitasuna duten gainerako pertsonengana, helburua izanik haien inklusioa sustatzea, prestakuntza, enplegua eta eskuragarritasun unibertsala palankak bultzatuz, etorkizunerako bidean modu bereiziezinean elkarturik.

- **Ilunion**

ONCE eta ONCE Fundazioa ekimen enpresarialen marka zeinetan elkartu diren gizarte ekonomiaren liderra izateko. Sei alorretan banatzen da: zerbitzuak; hotelekoa eta ospitalekoa; aholkularitza; soziosanitarioa; komertzializazioa; eta ekonomia zirkularra. Helburutzat ditu jasangarritasuna eta desgaitasuna duten pertsonen enplegua.